

gaurko filmak

Dos chicas de revista	●
Zuz.: Mariano Ozores. 86m. Esp. 1972.	11:00 La2
El hotel de los rehenes	★
Zuz.: Hal Needham. 85m. AEB. 1998.	16:30 T5
El bandido de Zhobe	★★
Zuz.: John Gilling. 77m. 1959.	18:35 ETB2
Piège fatal	★
Zuz.: John Frankenheimer. 105m. 2000	21:00 C+(f)
Maverick	★
Zuz.: Richard Donner. 123m. 1994.	21:45 ETB2
Aguas turbulentas	★
Zuz.: David Drury. 91m. 1997.	22:00 T5
Yo, yo mismo e Irene	★★
Zuz.: Bobby eta Peter Farrelly. 2000.	22:00 C+(e)
Calle 54	★★
Zuz.: Fernando Trueba. 101m. Esp. 2000.	23:10 La2
Deseos ocultos	★
Zuz.: Anthony Hickox. 90m. AEB. 2000.	00:00 T5
Tricheurs	★★
Zuz.: Barbet Schroeder. 95m. Fran. 1983	00:50 Arte
Vaya par de idiotas	★
Zuz.: Peter Farrelly, Babby Farano.	00:55 ETB2
Sin concesiones	★★
Zuz.: David Worth. 93m. AEB. 1996.	02:00 TVE1
Secreto tras la puerta	★★★
Zuz.: Fritz Lang. 94m. AEB. 1948.	02:10 La2
Veneno que me dieras	●
Zuz.: Mariano Ozores. 76m. Esp. 1988.	03:50 La2
● ★ ★★ ★★★★★	
Txarra Eskasa Balekoa Ona Bikaina	

EL BANDIDO DE ZHOBE

★★ ETB2 - 18:35

Zuz.: John Gilling. Akt.: Victor Mature, Anne Aubrey. 77m. 1959.

Victor Mature garai bateko izarrak rol nagusia jokatzen du abenturazko film zahar honetan. Britainiarrek India kolonizatuta zuteneko garaira garamatza, John Gilling zuzendaria berak idatzitako gidoia eszenaratzeko. Ez da oso film garrantzitsua eta zertxobait zaharkitua geratu da, gainera. Bestalde, arina da eta entretenimendu gisa ikusteko modukoa duzue.

MAVERICK

★ ETB2 - 21:45

Zuz.: Richard Donner. Akt.: Mel Gibson, Jodie Foster. 123m. 1994.

Mendebalde Urrunean girotutako abentura garesti



Trueba, dokumentaleko zuzendaria, bi musikarirekin.

Jazz musika latinoaren bilduma ederra

CALLE 54 ★★

La 2 - 23:10

Zuz.: Fernando Trueba. Akt.: Paquito D'Rivera, Eliane Elias., Tito Puente..101m. Espainia. 2000.

Fernando Truebak New Yorkeko 54. kale ospetsuan kamera kokatu zuen, hantxe bildu ohi diren latindar musikari garrantzitsuenen doinu eta erritmoak dokumental itxura duen zinta bitxi eta interesgarri batean biltzeko. Film gisa ez da oso nabarmena, baina jazzlari latino onenen musikak osatutako soinu banda benetan ederra da, gozagarria eta oso gomendagarria deritzot, zaleentzat. Paquito DeRivera, Chano Domínguez eta Eliane Elías musikariek parte hartzen dute, beste artista batzuen artean.

baina kaskar samar honek aurpegi ospetsuak biltzen ditu eta, beharbada, horixe bera da nabarmentzea merezi duen elementu bakarra. Jodie Foster eta Mel Gibson ospetsuen alboan, James Garner mitikoa azaltzen da, hau da izenburu bereko telesail zaharreko protagonista-rena egin zuena. Richard Donnerrek (*Superman*, 1978) zuzendu zuen, western klasikoan berpizkundearen modari jarraiki.

YO, YO MISMO E IRENE

★★ C+(e) - 22:00

Zuz.: Bobby eta Peter Farrelly. Akt.: Jim Carrey, Renne Zellwegger. 100m. AEB. 2000.

Hau da Farrellytarren miresleei gomendatu nahi diedan beste film bat. Jim Carrey lagun eta lankidea rol nagusian jarri zuten, *Dumb and Dumber*-en bezala, bai baitzekiten haren etengabeko keinu eta txorakeriak filmatuta ikus-entzule asko erakarriko zituztela. Modako

Ane Muñoz

aktoreak nortasun anitze-ko gizonarena egiten du; Irenerekin maitemindu izana izugarrizko buru-haustea bilakatuko da, nortasun ezberdinekoek ere hura maite dutelako. Ireneren rola *Nurse Betty* eta *Diary of Bridget Jones* arrakastatsuetan agertzen den Renée Zellweger samurrak jokatzen du. Entretenigarria da.

VAYA PAR DE IDIOTAS

★ ETB2 - 00:55

Zuz.: Peter eta Bobby Farrelly. Akt.: Woody Harrelson, Randy Quaid. AEB. 1995.

Farrelly anaia eroek elkarrekin filmatutako lehen film luzea, Woody Harrelson eta Randy Quaid eza-gunek protagonizatutako komedia tentel eta basatia da. Entretenigarria ere bada, zuzendarion *There's Something About Mary* arrakastatsuaren mailara iristen ez den arren. Peter Farrellyk aurretik errealityatutako *Dumb and Dumber* komertzialaren tanke-rakoa da; bi tontolapikoen gorabeherak umorez erakusten dira. Bill Murray bigarren mailako rolean azaltzen da.

SECRETO TRAS LA PUERTA

★★★ La 2 - 02:15

Zuz.: Fritz Lang. Akt.: Joan Bennet, Michael Redgrave. 93m. AEB. 1948.

Fritz Lang maisuak zuzendu ohi zuen Diana Productions ekoiztetxearen azken lana, Langek berak maisutasun handiz errealizatua, intriga eta beldurra eragiten dituen zuri-beltzeko *thriller* psikologiko ezeroso bezain interesgarria da. Joan Bennett eta Michael Redgrave biltzen ditu rol nagusietan.

ETB-1
07:00: Betimu. 07:25: Betizu. Tom eta Sheenah. Hartz txiki. Montana. 08:50: E-klipse. 09:50: Mintzoaren arnasa. 10:35: Ederra eta piztia. 11:20: Benta berri. 11:40: 64. 12:15: Hau komeria. 12:35: Bidaide. 13:30: Betizu. 14:00: Gaur Egun. Albistegia. 14:45: Gaur Egun Elkarrizketa. Gonbidatua: Jose Luis Elorza. 15:20: Goenkale. 16:00: Gagnorarik gagbe. 16:15: Jaun ta jabe. 17:20: Bidaide. N.G. Elur jauzia: heriotza zuria. 18:20: Betizu. 19:45: Betimu. 20:20: Iparraldearen orena. 20:28: Gaur egun. 20:55: Bertatik bertara. 21:30: Hasiberriak. 21:50: Goenkale. 22:30: Pilota: Eskuz Binaka. Nagore - Armendariz/ Berasal VII - Errandonea. 23:30: Pilota: Eskuz Binakako Txapelketa. Titin III - Zezeaga/ Tirapu - Zearra. 00:50: Boxeo izarrak. 01:55: Hitzetik hortzera. 02:55: Gaur egun elkarrizketa. 03:25: Bertatik bertara. 03:55: Esanak esan. 04:25: Elkartasunaren bideak. 04:55: Euskal Heritik. 05:25: Benta berri. 05:50: Herri musika sorta. 06:05: Osabideak. 06:15: Ikusgela.

ETB-2
07:00: Del pais de los vascos. 07:25: Sustraia. 07:55: Cafe Co-media. La cruda realidad. Radionoticias. Loco por ti. La niñera. 09:30: El punto. Josu Jon Imaz. 10:00: Forum. Juan Jose Abascal eta Nieves Perex. 10:40: Clasicos en serie. 13:25: Euskadi directo (EAEn). Navarra directo (Nafarroan). 13:55: El principe de Bel-Air. 14:20: Date el bote. 14:58: Teleberri. Albistegia. 15:45: Lo que faltaba. 18:35: Zinema. El bandido de Zhobe Zuz.: John Gilling. Akt.: Victor Mature, Anne Aubrey. 1959. 20:00: Esta es mi gente. 20:58: Teleberri. Albistegia. 21:45: Zinema. Maverick Zuz.: Richard Donner. Akt.: Mel Gibson, Jodie Foster. 1994. 00:15: Abre los ojos. 00:55: Zinema. Vaya par de idiotas Zuz.: Bobby eta Peter Farrelly. Akt.: Woody Harrelson. 03:05: Medias de seda. 04:00: Lo que faltaba. 06:20: Forum.

TVE1
06:00: Canal 24 horas. 07:30: Telediario matinal. Gonbidatua: Julian Lanzarote. 10:15: Pobre diablo. Telesaila. 11:30: Saber vivir. <i>Ejercicio para no enfermar.</i> 12:45: Asi son las cosas. Magazina. 14:00: Informativo territorial. Albistegia. 14:30: Corazon de invierno. Anne Igartiburuk aurkeztutako magazin saioa. 15:00: Telediario 1. Albistegia. 16:00: Egurdia. 16:05: La verdad de Laura. Telesaila. 16:35: Cuando seas mia. Telesaila. 19:15: El precio justo. Lehiaketa. 20:00: Gente. Sonia Ferrerek eta Pepa Buenok aurkeztutako saioa. 21:00: Telediario 2. Albistegia. 21:55: Egurdia. 22:00: Cruz y Raya. Com2. Umorezko saioa. 22:55: Ay, mi madre. 01:30: Telediario 3. Albistegia. 02:00: Zinema. Sin concesiones Zuz.: David Worth. Akt.: Daniel Bernhardt, Beverly Johnson. 1996. 03:30: Canal 24 horas.

A3
07:05: El perro de Flandes. Telesaila. 07:25: Club Megatrix. Pandilla sobre ruedas. Chicho terremoto. Campeones. Tres amigos y Jerry. Spirou. 09:15: Boletín informativo. 09:30: El primer cafe. 10:30: De buena mañana. 13:15: Boletín informativo. 13:25: Informativos territoriales. 13:30: Nada es para siempre. 13:55: Sabrina. Telesaila. 14:25: La niñera. Telesaila. 15:00: Noticias 3 Noticias 1. Albistegia. 16:00: Yo soy Betty, la fea. Telesaila. 16:50: Sabor a ti. 18:50: El diario de Patricia. Magazina. 19:55: Pasapalabra. Lehiaketa. 21:00: Noticias 3 Noticias 2. Albistegia. 22:00: Menudas estrellas. 00:20: Alerta 112. 01:55: Antena 3 Noticias 3. Albistegia. 02:30: Muchoviaje. com. 03:00: Televenta. 05:30: Repeticion de programas. 06:15: Sueños. 06:25: La ley de Los Angeles. Telesaila.

irratia



RADIO EUSKADI. CDN alderdiko presidente Juan Cruz Alli elkarrizketatuko du gaur goizeko 09:00ak aldera Pedro Garcia Larraganek. *En profundidad* ataleko eztabaida gaia, berriz, intsumisioa izango da. Gonbidatuak Enrique Lertxundi abokatua, KEM-MOCeko kide David Alonso, IUko kide eta intsumiso Txemi Peña eta Basauriko kartzelan dagoen Jose Ignacio Royo intsumisioa izango dira. *Boulevard Magazine*-n Leo Bassi elkarrizketatuko dute, Getxon aurkeztu behar duen *Vendetta* ikuskizuna dela eta. Ondoren Francisca Martinez ginekologarekin hitz egingo dute.

EUSKADI IRRATIA. San Sebastian eguna gertu dagoenez Donostiako elkarteei angularik izango den galdetuko diete 09:30ean. 10:00etan, Joxerra Garziaren gogoetak entzun ondoren, zinemaz arituko dira. 11:00etan, Argentinara begira jarriko dira: Euskal Herrian bizi diren argentinarrak euren herrialdearen egoera nola bizi duten azalduko dute. 17:00etan umorea eta San Sebastian eguna izango dute hizpide Kike Amonarrizek eta Antton Olariagak *Lauretan babel* saioan. Horretaz gain, Gaztelubide elkartean ia 30 urtetan sukaldari lanetan aritu den Piedad elkarrizketatuko dute.